

2008-10-28ko EZOHIZKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta zortzigarren urteko urriaren hogeita zortzian, arratsaldeko 20:30ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohizko batzarra egin du Udalbatzak, Marimi Ugalde Zabala alkatea buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Eugenio Loidi jauna, Jose Luis Olano Zubeldia jauna, Agustin Zubeldia Iraola jauna.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute: M^a Jesús Otaño Zumeta, Gregorio Lasa Etxezarreta eta Aitor Lasa Olalde jaun/andreak.

Udaleko idazkariak, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

LEHENBIZIKO GAIA

ZERGAREN ETA TASAREN ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA 2009 URTERAKO ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Alkatetzak jakinarazi du udal-zergak aldatzea komeni dela, indarrean dagoen araudiak ezartzen duenaren arabera.

Gai honen inguruan, Udalbatzak honako erabaki hauek hartu ditu aho batez, Idazkaritza-Kontuhartzaitzak aurkeztutako azterketa ekonomiko-finantzarioak ikusi ondoren eta indarrean dagoen legedian ezarritako eskuduntzen arabera, hots, apirilaren 2ko 7/1985 Legea, 22.2. art., e) atala, eta uztailaren 5eko 11/1.989 Foru Araua, Gipuzkoako Udal Ogasunak arautzen dituenak:

Lehena.- Behin-behineko izaerarekin onartzea Ordenantza Fiskalen aldaketa eta bere eranskinak, honako tasa eta zergei dagozkiena, eta 2009ko

urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak izango dituen:

1.- Oinarrizko elementuak arautzen dituen Ordenantza Fiskalaren eranskina aldatzea, ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuotak zehazteko.

A) Zerga mota hau ezartzea hiri-lurretako ondasun higiezinarentzat:

- Izaera orokorrekoak: %0,19375.

- Industria-lurretan edo hirugarren sektoreari dagozkion lurretan kokatutako ondasun higiezinarentzat, erabilera nagusia industrialak ez duten eraikuntzetan kokatuta dauden finkeentzat izan ezik: %0,500.

B) Zerga mota hau ezartzea landa-lurretako ondasun higiezinarentzat: 0,6%.

2.- Aldatzea ekonomia-jardueren gaineko zerga arautzen duen Ordenantzaren eranskina, honela geratuko dena:

- Zehaztutako kuota minimoen gehitze-koefiziente bakarra: 1,75.

- Udalerriko kaleak klasifikatzea: kopapen-egoera: 1.

Kale-kategoria: bakarra (udalerriko osoa).

3.- Aldatzea trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen Ordenantza fiskalaren eranskina, eta honako urteko kuotak ezartzea ibilgailu mota desberdinentzat:

- Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga:

TURISMOAK	2009 (€)
9 zaldi fiskaletik behera	31
9tik 11,99ra	63
12tik 13,99ra	105
14tik 15,99ra	147
16tik 19,99ra	189
20tik gora	231
AUTOBUSAK	
21 eserleku	148
21etik 50era	207
50 baino gehiago	259
KAMIOIAK	
1000 kg-tik behera	74

1000 kg-tik behera	74
1000 kg-tik 2999 kg-ra	145
3000 kg-tik 9999 kg-ra	207
10000 kg-tik gora	259
TRAKTOREAK	
16 zaldi fiskaleraino	36
16tik 24,66ra	52
25etik gora	145

IBILGAILUEN ATOIAK	
75 kg-tik 1000 kg arte	36
1000 kg-tik 2999 kg arte	52
3000 kg-tik gora	145
BESTELAKO IBILGAILUAK: MOTOR ETA ZIKLOMOTO- REAK	
ziklomotoreak	9,50
125 cc arte	9,50
125etik 250 arte	15,50
250etik 500 arte	31
500etik 1000 arte	57
1000tik gora	106

4.- Aldatzea lurren balio-gehitzearen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala:

a) Ehuneko taula.

Periodo de porcentaje anual :

- Urte 1etik 5 urte arte: 3,6

- 10 urte arte: 3,4

- 15 urte arte: 3,1

- 20 urte arte: 2,9

b) Tarifa:

- Karga-tasa: 7,5%

5.- Aldatzea udal-zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik ezarritako zergak arautzen dituen ordenantza fiskala:

a) Ur-horniduraren tasak:

Ur-hartze berria: 14

ETXEBIZITZAK	
3 hilero 20 m ³ arte	6,30 €
20 m ³ -tik 80 m ³ arte	0,40 €/m ³
80 m ³ -tik gora	0,52 €/m ³
Irakurgailua mantentzea (3 hil.)	2,30 €
DENDA, GARAJE ETA TABERNAK	
3 hilero 30 m ³ arte	10,50 €
30 m ³ -tik 100m ³ arte	0,46 €/m ³
100 m ³ -tik gora	0,57 €/m ³
Irakurgailua mantentzea (3 hil.)	2,30 €
ENPRESAK	
3 hilero 40 m ³ arte	18,50 €
40 m ³ -tik 200 m ³ arte	0,57 €/m ³
200 m ³ -tik 500 m ³ arte	0,70 €/m ³
500 m ³ -tik gora	0,75 €/m ³
Irakurgailua mantentzea (3 hil.)	4,60 €

– Aisialdi eta jolas jardueretako erabilpena:

Gutxieneko tarifa hiruhilekoa, 40 m³ arte kontsumitzeko eskubidearekin 18,50
 40 m³-tik aurrera kontsumituz gero hiruhileko, m³ 0,57
 Irakurgailua mantentzea hiruhileko 4,60

– Udal eremuan ez dauden enpresen erabilera:

Gutxieneko tarifa hiruhilekoa, 40 m³ arte kontsumitzeko eskubidearekin 21,00
 40 m³-tik aurrera kontsumituz gero hiruhileko, m³ 0,75
 Irakurgailua mantentzea hiruhileko 6,00

b) Estolderia zerbitzuaren tasa.

– Hiruhilean kontsumitzen den m³ bakoitzeko: 0,2 €

c) Etxeko zabor bilketaren tasa:

- Etxe bakoitzeko 3 hilero: 14,30 €
- Denda eta 3 ibilgailu baino gehiagoko garajeak, 3 hilab.: 26 €
- Elkarte eta tabernak: 32,50 €
- 5 langile arteko lantegiak, 3 hilab.: 42,50 €
- 5 eta 20 langile bitarteko lantegiak, 3 hilab.: 65 €
- 20 langile baino gehiagoko lantegiak, 3 hilab.: 110 €
- Dantzalekuak, diskotekak eta antzekoak, 3 hilab.: 390 €
- Orokorrean, beste unitateak, 3 hilab.: 14 €

Hartutako akordioak eta bideratutako espedienteak jendaurrean jartzen dira, Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Arau Foralak agindu bezala; horretarako iragarkiak argitaratuko dira bide ofizial honetan, Udaletxeko iragarki taulan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko egunkaririk zabalduenetako batean. Hori dena arau hauen barruan:

- a) Non dauden agerian: Udal honetako Idazkaritzan.
- b) Aztertze eta erreklamatzeko epea: 30 egun baliodun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertu eta hurrengo egun baliodunetik hasita, bulegoko orduetan.
- c) Erreklamazioa egin dezaketenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Arau Foraleko 17. artikuluan azaltzen direnak.
- d) Non aurkeztu: Udaleko Sarrera Erregistro Orokorrean. Administraziozko Prozeduraren Legeak bere 66. artikuluan esaten duen tokietan ere bai.
- e) Non aurkeztu errekurtsioa: Osoko Bilkuran.

Informazio hau emateko epea amaitu ondoren, eta erreklamaziorik edo oharrik ez badago, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira eta ez da beste erabakirik beharko.

BIGARREN GAIA

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK PROPOSATZEN DUEN HITZARMENA (2008-2011) BERRITZEA, HALA BADAGOKIO.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak hitzarmen proposamen bat bidaltzen dio udal honi 2008-2011 urterako.

Hori ikusita eta aurreko udalbaltzan aipatu ziren zalantzak argituta, udalbaltzak aho batez erabaki du:

1.- Hitzarmen hori baimentzea, baina aldaketa batekin:

- Biztanle-kopurua urte horretarako legez onartuta dagoena izango da. Hain zuzen ere, 2008rako biztanle-kopurua 1270 izango da.

2.- Baimena ematea alkateari, Marimi Ugalde Zabala andreari, hitzarmen hori sinatzeko udalaren izenean.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, 20:45ean eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.